

**2015EKO IRAILAREN 16AN SASIETA MANKOMUNITATEKO
BATZORDE ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hamaseia

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta hamabost.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Apartekoa

DEIALDIA: Lehena

LEHENDAKARIA: Aitor Aldasoro Iturbe, Beasaingo ordezkaria

BILDUAK: Eluska Ibarguren, Altzagako ordezkaria
Luis Garmendia Sagastume, Aramako ordezkaria
Asier Rodriguez Etxeberria, Ataungo ordezkaria
Edorta Diaz del Rio, Beasaingo ordezkaria
Jesus María Garmendia Gorostidi, Gaintzako ordezkaria
Ioritz Imaz Baztarrika, Idiazabalgo ordezkaria
Asier Garro Sodupe, Itsasondoko ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Iñaki Estensoro Sarasola, Lazkaoko ordezkaria
Koldobike Olabide Huelga, Legazpiko ordezkaria
Oscar Valbuena Pascual, Legazpiko ordezkaria
Mariano Garmendia Iparragirre, Legorretako ordezkaria
Iñaki Ugalde Alustiza, Mutiloako ordezkaria
Jokin Garmendia Arruabarrena, Olaberriko ordezkaria
Olaia Izagirre Cruz, Ormaiztegiko Udala
Igor Zubillaga Aguado, Urretxuko ordezkaria
Jose Antonio Etxabe Nazabal, Zaldibiko ordezkaria
Joseba Izagirre Arocena, Zegamako ordezkaria
Amaia Junquera Landeta, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria
Ricardo Lozano Landart, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Tomas Etxaniz Mendiguren, Ezkio-Itsasoko ordezkaria.
Arantxa Bidegain Ormazabal, Gabiriako ordezkaria
Ordiziako ordezkariak izendatu gabe daude.
Eñaut Telleria Urkia, Segurako ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran ere parte hartu dute, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak, Iñaki Erauskin Urretabizkaia, Zerbitzuburuak eta Enrike Enparantza Ingurumen teknikariak.

1.- AURREKO AKTA. 2015eko irailaren 8ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ORDEZKARIEN IZENDAPENA. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan ordezkarien izendapena.

Aho batez ondorengo erabakia hartu du:

Lehenik. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan ondorengo ordezkari titular eta ordezkoak izendatzea:

	EAJ-PNV	BILDU	PSE-EE/PSOE
Titulalarrak	Aitor ALDASORO ITURBE	Asier GARRO SODUPE	Mikel SERRANO APERRIBAY
Ordezkoak	Edorta DIAZ DEL RIO	Asier RODRIGUEZ ETXEBERRIA	Oscar VALBUENA PASCUAL

Bigarren. Erabaki honen berri, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari ematea.

3.- PROIEKTUA IDATZI ETA OBRAK EGITEA.

Sasieta zabortegiko Ingurumen baimen bateratuan (D.3.5. puntuan) jaso bezala, zabortegiko lixibatuak Gipuzkoako Urak-en saneamendu sarean isurtzeko baldintzak bete ahal izateko, Legorretako *Gaikao* araztegian dagoen tratamendu biologikoa egokitzeko proiektua idatzi eta obrak egiteko proposamena.

Ezagutzera eman da, egun lixibatuak depuradora isurtzeak hiruhilabetero 100.000,00 €ko kostua duela. Dena den kostu hau oso aldakorra da, kaudalaren arabera. Orain, Baimen Bateratuan esijitutako betetzeko, Legorretako *Gaikao* araztegien dagoen tratamendu biologikoa egokitzeko Ur Kontsortzioak proiektua idatzi behar du, jarraian proiektua exekutatzeko obrak lizitatu ahal izateko.

Obren kostua, 1,7 milioikoa izango dela aurreikusten da.

Orain Gipuzkoako Ur Kontsortzioari baimena eman behar zaio, proiektu hori egin eta obrak exekutatzeko, nahiz eta alde zuzenetik hitzarmen bat sinatu beharra izan.

Ordezkeri baten galderari erantzunez, bilerara bertaratutako teknikoek adierazi dute, araztegien obrak egin ondoren lixibatuen isurketak izango duen kostua jakitea, ezinezkoa dela.

Bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Sasieta Zabortegiko Ingurumen Baimen bateratuan (D.3.5. puntuan) jaso bezala, zabortegiko lixibatuak Gipuzkoako Urak-en saneamendu sarean isurtzeko baldintzak bete ahal izateko Legorretako *Gaikao* araztegien dagoen tratamendu biologikoa egokitzeko proiektua idatzi eta obrak egiteko, **GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI baimena ematea.**

Bigarren. Erabaki honen berri GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOARI ematea.

4.- HITZARMENA GHK ETA GHK, S.A.U.REKIN

Sasieta Zabortegian obren exekuzioa koordinatzeko GHK eta GHK, S.A.U.rekin hitzarmenaren inguruko akordio proposamena.

Ezagutzera eman da, Gipuzkoako hainbat araztegietakoa lohiak Sasieta, Urteta eta Lapatx zabortegietan bota direla urte askotan, baina banaketa hori ez dela proportzionala izan eta Sasieta jaso dituela lohirik gehienak, naiz eta Ur Kontsortzioari eta beste zabortegiei banaketa beste modu batera egiteko eskatu. Orain bertan Sasieta zabortegian hiru baltsa daude lohiekin eta tratatu beharrean daude estabilizatzeko. Aurreko legealdian GHKri delegatu zitzaion hitzarmen baten bidez, zabortegiko inpermeabilizazio obrak egitea eta pilatutako lohiak tratatzea. Honetarako GHK-k tekniko batzuk kontratatu zituen, baina orain tekniko horiek ez daude. Teknikari hauek egindako proiektuaren arabera lohien tratamenduaren aurrekontua oso altua da (1,6 milioi €, BEZ

barne), hasera batean aurreikusi zitekeena baino (0,5 milioi €) askoz garestiagoa. Uztailetik hona beste alternatiba batzuk azertu dira helburu hori lortzeko, hala nola, konpostajea (GHKak proposatutakoa baino merkeagoa da, %50a gutxi gora behera) edo eskoria txuria erabiltzea.

Hori guztia azaldu ondoren, lehendakariak ondorengo proposatu du: lehengo legealdian sinatutako hitzarmena bertan behera uztea eta lohiak tratatzeko beste alternatiba batzuk erabili ahal izateko eta hauek aztertzekeo ardura, Sasieta teknikariei ematea.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2015eko urtarrilaren 16an, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa, S.A.U.rekin eta Gipuzkoako Hondakinen kudeaketa, S.A.U.rekin, zabortegiaren hedapenaren integratutako ingurumen-baimenean ezarri ziren baldintzak betetzeko, sinatutako **lankidetzeta-hitzarmena** (ondoren, 2015eko maiatzaren 14an Sasieta Mankomunitateko Batzorde Errektoreak aldaketa onartu zuen baina aldaketari hori ez zen formalizatu) **bertan behera uztea**.

Bigarren. Lohiak tratatzeko irtenbidea aztertzekeo ardura, Sasieta teknikariei ematea.

Hirugarren. Erabaki honen berri, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioari ematea, erabaki honen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez.

5.- “UTE GOIERRI GARBIA”REKIN KONTRATU ALDAKETA:

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak 2015eko uztailaren 29an, zabor bilketa edukinontzi bidez egiteko Mankomunitateari eskatzeko erabakiaren aurrean, klausula administratibo partikularren orriko 12.2 klausulan “aurreikusitako aldaketen” inguruan xedatutakoaren arabera, UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzeko proposamena.

Ondorengo ezagutzera eman da:

I.- Zegokion lizitazioa izapidetu ondoren, Sasieta Mankomunitateko Batzar Errektoreak 2015-05-14an, Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko esleipena egitea erabakitzen zuen, UTE, FOMENTO DE CONSTRUCCIONES Y CONTRATAS, S.A.-SERBITZU ELKARTEA, S.L.alde, baldintza administratibo eta tekniko

agirien eta esleipendunak aurkeztutakoaren arabera. Kontratua, 2015eko ekainaren 9an formalizatu zen, UTE GOIERRI GARBIArekin.

II.- Baldintza pleguaren 12.2 artikuluan kontratua aldatzeko kasuak aurreikusi ziren, besteak beste, bilketa-sistemaren aldaketa.

III.- 2015eko irailaren 1ean, Lazkaoko Udalaren Alkateak sinatutako idatzia jaso zen, 2015-07-29ko plenoko erabakiaren berri emanez, Sasieta Mankomunitateari zabor bilketa edukinontzien bitartez egiteari buruzkoa.

IV.- 2015eko irailaren 15ean, Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak Lazkaoko udalerrian edukinontzien bidez zabor-bilketa egitea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria denari buruzko txostena eman zuen. Txosten horretan aipatzen da, kontratuaren aldea, -%1,32koa dela. Kontratuaren prezioa, 3.731.106,81 €koa (BEZ barne) da eta aldaketa onartu ezker, kontratuaren prezioa, 3.681.686,95 € (BEZ barne) izango litzateke.

V.- Ahoz kontratistari eman zitzaion Lazkaoko Udalak hartutako erabakiaren berri eta honek aurkeztu du aldaketa horrekiko azterlan tekniko-ekonomikoa.

VI.- 2015eko irailaren 16an, idazkaritzako aldeko txosten juridikoa ere eman da, kontratua aldatzeari buruz.

Horren ondorioz, proposatu da UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza izan da:

Aldeko botoak: 15

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 7

Beraz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Sasieta Mankomunitatearen esparruan hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko, UTE GOIERRI GARBIArekin kontratua aldatzea, Lazkaoko Udalerrian zabor bilketa edukinontzien bidez egingo delako.

Bigarren. Kontratuaren prezioa urteko, 3.681.686,95 €, BEZ barne izango da. Kontratuaren beste estipulazioak ez dira aldatzen.

Hirugarren. Lazkaoko udalerrian bilketa sistema-aldatzeak suposatuko dituzten beste gastuak, hala nola, informazio kanpaina, organiko eta errefusa materia sortzen dituztenei banakako bisita egitea, edukinontzi marroia irekitzeko 2.500 giltza egitea, 27 Mifare (DORLET) sarraila eta alboko kargako edukinontzietan egokitzeko gris kolorea duten 20 multzoekin hornitzea, Sasieta Mankomunitatearen kontura izango dira.

Ontzi txikiak zintzilikatzeko jartzeko euskarriak erretiratzea, erretiratzerakoan kaltetuta gertatzen direnak eta Mankomunitateko biltegira eramatea, Lazkaoko Udalaren kontura izango da.

Lazkaoko udalerrira zabor bilketarako edukinontziak eramatea eta kalean kokatzea, kontratistaren kontura izango da.

Laugarren. Erabaki honen berri Lazkaoko Udalarari eta kontratistari ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsioen aipamena eginez.

6.- ESKARIA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

EKARPENAK

Lehendakari jaunak: nahiz eta lehengo aldian aurreikusitako 2015eko urriko zabortegiaren irekiera, hori ez da horrela gertatuko. Lohiak atera edo estabilizatu beharren gaude lehenik. Horrek esan nahi du ez dela aurreikusitako diru-sarrerarik izango eta herri bakoitzak egin beharreko ekarpena handiagoa izango dela 2015eko aurrekontu desfaseari aurre egiteko.

Datorren urteko igoera bestalde, %43 ingurukoa izango da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.